

PIO BAROJARI HIRIAREN URREZKO DOMINA HIL ONDOREN EMATEKO PROPOSAMENA

Donostiako Udaleko talde popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 90. eta 91. artikuluek ematen duten babes aintzakotzat hartu eta PROPOSAMEN hau dakar: hil ondorengo Hiriaren Urrezko Domina ematea Pio Baroja y Nessi-ri.

JUSTIFIKAZIOA

Pio Baroja y Nessi Donostian jaio zen 1872an, eta Madrilen hil zen 1956an.

Medikuntza ikasi zuen Madrilen eta Valentzian, literaturarekin zerikusi handirik edo batere ez zuen gauza, eta “El dolor, estudio psicofísico” jarri zion izena bere doktore-tesiari. Literaturan aritu baino lehen, okin aritu zen, anaiarekin batera, familiaren okindegi batean, eta mediku ere bai, bi urte, Zestoan (Gipuzkoa).

Azorín izan zuen literatura-munduaren inguruko aurreneko laguna, eta, haren adiskide egin eta gero ekin zion erabat idazteari eta, oro har, literaturari.

Bidaiari handia izateak ikuspegi nahiko irekia eman zion zuen zaletasunean eta literaturan egindako lanean. Espainiako eta Europako hiri ugari ezagutu zituen. Paris izan zen idazle espainiarrak gehien bisitatu zuen lekuetako bat.

1935ean, Espainiako Errege Akademian sartu zen, eta Frantziara emigratu zuen Espainiako Gerra Zibila lehertu zenean. 1940an itzuli zen handik.

Madrilen jarri zen bizitzen orduan, eta jarduera publikotik urrun bizi izan zen.

Idazle nahiko oparoa izan zen, 60 eleberrri baino gehiago (trilogia batzuk ere bai tartean) eta ipuin asko idatzi baitzituen. Era guztietako lanak egin zituen (entseguak, biografiak, poesia, antzerkia, narratiba eta baita memoria-liburuak ere). Idatzi zuen nobela mordo handiaren artean, hauek aipatu ditzakegu: El árbol de la ciencia (A la raza trilogiakoa), Zalacaín el aventurero (Tierra Vasca-koa), Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox, Camino de perfección (La vida fantástica-koak), Los inquietudes de Shanti Andía (El mar-ekoa),

César o nada (Las ciudades-ekoa), eta Memorias de un hombre de acción sailekoak (El aprendiz de conspirador, Con la pluma y con el sable...).

Miguel Unamuno, Azorín eta Ramiro de Maezturekin batera, “98ko belaunaldia”ren ordezkari nagusietako bat izan zen. Espainiako azken kolonien galerak (“98ko hondamendia”) haiengan izan zuen eraginagatik izendatu zuten hala, herrialdea gainbeheran zela ohartarazteko modu mingarrian. Talde hartan zen nobelagilerik bikainena zen Baroja, eta gai existentzialak eta sozialak erabili zituen haietan, nahiz eta haren lanaren beste alderdi batek ere (ekintza eta abentura narratiba) estimazio handia duen.

Ez dago Pío Baroja baino unibertsalagoa den donostiarrik.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu duen taldeak dakarren proposamena, Udalbatzak hurrena izaten duen osoko bileran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Hil ondorengo Hiriaren Urrezko Domina ematea Pio Baroja y Nessiri.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 13a

Borja Corominas Fisas

Talde Popularraren bozeramailea